

## FUNTSEZKO BAZKIDEAK:

Gure proiektuak funtziona dezan, aliatu askoren laguntza beharko dugu. Besteak beste, honako hauek izango dira garrantzitsuenak:

**-Preskriptoreak:** Sare sozialen aroan bizi garen ondorioz, gure produktua gure kontsumitzaileen belarrietara iristeko, influencer-ak erabiliko doguz. Gure app-a sustatzea gustatuko litzaigukeen influencer mota honako hau da: emakumea, gaztea(40 urtetik beherakoa), bidaiei eta turismoari buruzko edukinak egiten dutenak. Izan ere, influencer mota horren jarraitzaile gehienak gure app-aren bezeoren segmentazioagaz bat egiten daua, adibidez; @claudiamary, @patrigoe, @lamochiladesara eta @el\_viajedetuvida.

**-Bezeroak:** Edozein enpresatarako ezinbesteko dan beste talde bat kontsumitzaileak dira, horiek gabe ez bailitzateke enpresa sortzeko arrazoirik egongo. Horretaz gainera, bezeroek oso paper garrantzitsua izango dute app-a eta establezimenduak baloratzean. Balorazio hau beharrezkoa izango da, gure proiektua hobetu ahal izateko, beste bezeroak erakartzeko eta appari fidagarritasuna emateko.

**-Finantzaketa:** Gure proiektua finantzatu ahal izateko eta funtziona dezan, hainbat iturriren finantzaketa beharko dugu. Horien artean daude bankuak, inbertitzaileak eta gure app-an sustatu nahi duten establezimenduak.

**-Banaketa-enpresak:** Gure kasuan, proiektua app batean oinarritzen denez, banaketa-enpresak digitalak izango lirarteke, hala nola app store eta google play. Horrela, kontsumitzaileek gure app-a deskargatu ahal izango dute.

**-Establezimenduak:** Gure aplikazioan atxikitu nahi duen establezimendu sarea behar-baharrezkoa dan beste atal bat izango da gure proiektuarako. Establezimendu horiek konfiantzazkoak eta seguruak izatea ezinbesteko baldintza da. Establezimenduak mota askotakoak izango dira; hotelak, hostalak, jatetxeak...